

SODIO KLORITO LIKIDOAREN HORNIDURA

3. DOKUMENTUA PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. AGIRIAREN XEDE

Agiri honen xedea honako hau da: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) Beteluriko EUTan sodio kloritoaren horniduraren kontratazioa arautzea, bai eta hornidura horretarako kontratuak bete behar dituen baldintza teknikoak ezartzea eta kontratistak, kontratuaren jardun ona bermatzeko, baitaratutako konpromisoen irismena zehaztea ere.

Benetako gastua Administrazioaren benetako premiek baldintzatuko dute eta, beraz, ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat jasotzera, ezta adierazitako zenbateko osoa gastatzera ere.

Aurreikusitako kopuruak zenbatespen bat dira, eta benetan hornitutako tonak eskainitako prezio unitarioen arabera ordainduko dira.

Erreaktiboaren bolumena 85 tona produktu izango da, % 25aren baliokidea den aberastasunekoa, eta 10 m³-ko zisterna-kamioian hornituko da urtebetez.

2. ESPARRU ARAUEMAILEA

Hornigaiak «UNE-EN 938:2016 arauan —Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Sodio kloritoari buruzkoa—» zehaztutakoa bete behar du. Arau horretan jasotzen diren parametroak gutxieneko balioak izango dira ezpurutasun-edukiari eta azpiproduktuei dagokionez. Edozein kasutan, edateko uraren arazketaren tratamenduan erabilitako produktuak, dosi normaletan, ez du edateko uren erreferentziazko araudian eskatzen den kalitateari dagokionez hura ez betetzea eragiten duen kutsatzailerik izan behar.

Substantzia horrek (EB) 1907/2006 Erregelamenduan —substantzia eta prestakin kimikoak erregistratzeari, ebaluatzeari, baimentzeari eta murrizteari buruzkoa (REACH)— eta haren geroagoko aldaketetan bildutako kondizioak bete beharko ditu.

Garraioaren ikuspegitik, betetzekoa izango da Espainiar lurraldeko errepideetan zehar salgai arriskutsuen garraioak arautzen dituen otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretua, bai eta Salgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruz indarrean dagoen Europako Akordioa (ADR) ere.

Substantzia kimikoen eta haien nahasteen erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna babesteari dagokionez, 1272/2008 CLP Erregelamendua (Substantziak eta nahasteak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa) beteko da.

Era berean, adjudikaziodunak nahitaez aplikatu beharko ditu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako prebentziorako ekintzen printzipioak.

Goian adierazitakoaz gain, enpresa adjudikaziodunak BBUPen Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuak eskatzen dituen betekizun guztiak bete beharko ditu. Halaber, Arriskuen Ebaluazio Espezifikoaz gain, erreaktiboa deskargatzeko lanak jasoko dituen Lan Prozedura bat egin beharko du.

Kontratu honen indarraldian indarrean jartzen den araudiaren edozein aldaketa edo argitalpen berri bete beharko du adjudikaziodunak, baldin eta horniduran eragina badu.

Ingurumenari buruzko legeriari dagokionez, kontratua bete bitartean hondakinen bat sortzen bada, hala nola erreaktibo likidoa edo produktu horrekin kontaktuan egon diren materialak edo ontziak, berori hondakin arriskutsutzat hartuko da eta apirilaren 8ko 7/2022 Legean (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko dena) eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuan (Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duena) jasotzen diren alderdiak bete beharko dira.

3. ALDERDI OROKORRAK

Hornidurak Beteluriko EUTan egingo da; aurretik telefonoz eskatu beharko dira eta BBUpek bere premien arabera ezartzen duen aldizkakotasunez.

Garraio bakoitzak bere emate-agiria izango du. Agiri horretan argi eta garbi azalduko dira hornitutako produktu kopurua, lotearen azterketa-buletina, garraiolariaren eta ibilgailuaren identifikazioa. Halaber, emate-agiri eta garraio-dokumentu bakoitzean argi eta garbi azalduko da instalazioak ustiatzen dituen enpresaren izena hornigaiaren hartzaile gisa.

Garraiatutako produktuak deskargatzeko ordutegia, presazko arrazoiak daudenean izan ezik, 08:00etatik 18:00etara izango da lanegunetan. Ibilgailua aipatutako ordutegitik kanpo iristen bada, BBUpek ez du bermatzen produktuak deskargatu ahal izango direnik.

Erreaktiboaren hornidura-erritmoa BBUpek dituen premietara egokituko da une oro. Baldintza arruntetan, ez da hornidura-epe jakin bat eskatuko. Hornidura entregatzeko data bi aldeek adostuko dute eskaria egiten denean, aintzat hartuta eskaria egiten duen BBUpeko agenteak erabakitzen duen zentzuzko hornidura-epea. Ezohiko baldintzetan, ekoizpen-premiak direla medio, hornidura eskaria egin eta 72 orduko epean egitea eskatu ahal izango da, eta kontratistak, betekizun hori bete ezean, zehapena jasoko du.

Aldizka eta aurreko analitika eman zenetik gutxienez urtean behin, hornitzaileak kontsumo-urak analizatzeko laborategi egiaztatu batek egindako analitika bat aurkeztu beharko du. Analitika horretan produktuaren aberastasuna eta parametroen emaitza analitikoak, UNE-EN 938:2016 Araua (Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Kloroa) betez Preskripzio Teknikoen Agirian eskatzen direnak, adieraziko dira. Sodio kloritoa.

4. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

4.1 Eskatzen diren ezaugarri teknikoak eta ezpurutasun-maila

Sodio klorito likidoak ezaugarri hauek izango ditu:

A. Produktuaren identifikazioa

- Izen kimikoa: Sodio kloritoa
- Formula enpirikoa: NaClO_2
- CAS(1) erregistro-zenbakia: 7758-19-2
- EINECS(2) erreferentzia: 231-836-6

(1)CAS: Chemical Abstracts Service Registry Number

(2)EINECS: European Inventory of Existing Commercial Chemical Substances

B. Propietate fisikoak eta kimikoak

- Ur-disoluzioaren kontzentrazioa % 25
- Itxura Ur-disoluzio hori-berdexka
- Dentsitatea 20 °C-tan 1,21 g/ml
- Uretan nahastu daiteke, edozein proportziotan
- Kristalizazioa -14,5 °C
- Materia disolbaezinak: Produktuak ez du eduki behar ageriko metakin edo materia esekirik.
- Sodio klorato edukia (NaClO_3)... < 40 g/kg NaClO_2
- Sodio nitrato edukia (NaNO_3) < 1 g/kg NaClO_2

Produktuak ez du izango dosifikazio-lanetan eragina duen materiari eta ez du edukiko ez gehigarririk, ez ezpurutasunik, uraren kalitatea narriatzeko eta erabiltzaileen osasunean ondorio kaltegarriak eragiteko besteko kontzentrazioetan.

C. Parametro kimikoak

Produktuak UNE-EN 938:2016 arauaren 4.4 apartatuko 6. taulan zehaztutako baldintzak bete behar ditu, 1. motako kalitateari dagozkionak:

EZPURUTASUNAK	Sodio kloritoaren muga mg/kg-tan % 100 masa-frakzioan (1. mota)
Artsenikoa (As)	1,1
Kadmioa	1,5
Kromoa	1,1
Merkurioa	1,1
Nikela	1,1
Beruna	1,1
Antimonioa (Sb)	1,1
Selenioa	1,1

4.2 Salgai arriskutsu gisa sailkatzea

Disolbatuta emaniko sodio kloritoak ADR Akordioan jasotako araudi arauemailea beteko du. Araudi horren arabera, salgaiak NBEren zenbaki hau du: 1908.

Sodio kloritoak «korrosiboa» etiketa edo plaka (8.a) eta «ingurumenerako materia arriskutsua» dela identifikatzeko marka edo plaka eduki behar ditu, arrisku-esaldi hauekin baitago kategorizatuta:

H400: Arriskutsua ur-ingurumenerako – Arrisku akutua – 1. kategoria – Adi (CLP: Aquatic Acute 1).

Hornidura zisternan egiten denez, L4BV izango da kodea. Beste kode bat baliatu ahal izango da baldin eta mota onesteko ziurtagirian adierazten bada UN 1908 garraiatzeko balio duela; kasu horretan bakarrik.

4.3 Produktuaren bidaltzailea edo kargatzailea

Bidaltzailea salgai arriskutsua bidaltzeko agindu eta ordaindu duen pertsona fisikoa edo juridikoa da, zeinarentzat garraioa egiten den, eta hala ageri dena garraio-dokumentuan.

«Betetzailea»: zisterna bat salgai arriskutsuz betetzen duen enpresa.

Adjudikaziodunak (bidaltzailea edo kargatzailea / zisternen betetzailea) ADR Akordioaren 1.4 kapituluaren adierazten diren betebeharrak bete beharko ditu.

Salgai arriskutsuen bidaltzaileak ADR Akordioan jasotako xedapenen arabera bidalketa bat igorri beharko du garraiatzeko. Eginbehar hauek izango ditu, zehazki:

- a) Salgai arriskutsuak ADR Akordioaren arabera garraiatzeko sailkatuta eta baimenduta daudela egiaztatu beharko du.
- b) Eskatzen diren oharra eta informazioak, eta, hala dagokionean, garraio-dokumentuak eta laguntza-dokumentuak (baimenak, adostasunak, jakinarazpenak, ziurtagiriak eta abar) eman beharko dizkio garraiolariari.
- c) Dagozkion salgaiak garraiatzeko diren zisternak soilik erabiltzea, eta ADR Akordioan ezarritako markak adierazita.
- d) Bidaltzeko moduari buruzko eta bidalketa-mugei buruzko xedapenak bete beharko ditu.
- e) Ardura izan beharko du hutsik, garbitu gabe, dauden zisternak ere itxita egon daitezen eta beteta daudenean dituzten hermetikotasun-berme berak eduki ditzaten.

Bidaltzaileak beste parte-hartzaile batzuen (kargatzailea eta abar) zerbitzuak behar baditu, neurri egokiak hartu beharko ditu bidalketak ADR Akordioaren xedapenak betetzen dituela bermatzeko.

Bidaltzaile batek hirugarren batentzat lan egiten badu, hirugarren horrek bidaltzaileari idatziz adierazi beharko dio salgai arriskutsuak direla eta bidaltzailearen esku jarri beharko ditu bere eginbeharrak betetzeko behar diren ohar eta dokumentu guztiak.

Bidaltzaileak garraio-dokumentuak egin beharko ditu, zeinetan instalazio bakoitzeko enpresa ustiatzailea azalduko den hartzaile gisa, baina kontratu honetan barne hartzen diren hainbat instalaziotan deskarga partzialak egin behar badira, garraio-dokumentu bat baino gehiago prestatu beharko ditu edo, bestela, helbide bat baino gehiago dituen dokumentu bat. Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, egiaztatuko du agindutako panel laranja, markak eta plaka-etiketak ADRk zisternei buruz xedatutakoaren arabera jartzen direla.

Kargatzaileak betebeharrak hauek izango ditu bereziki:

- a) Salgai arriskutsuak garraiatzeko ADR Akordioaren arabera baimenduta badaude bakarrik entregatu beharko dizkio garraiolariari;
- b) Salgai arriskutsuak ibilgailu batean kargatzen dituenean, kargari eta karga maneiatzeari buruzko xedapen bereziak bete beharko ditu;

4.4 Zisternen kargatzailea edo betetzailea

ADR Akordioaren 1.4.1 puntuan adierazten denez, zisternen kargatzaileak edo betetzaileak betebeharrak izango ditu:

- a) Zisternak bete aurretik, zisternak eta zisternen ekipamenduak egoera tekniko onean daudela egiaztatu beharko du;
- b) Zisterna-ibilgailuen hurrengo probaren data ez dela gainditu egiaztatu beharko du;
- c) Zisterna horietan garraiatzeko baimendutako salgai arriskutsuekin bakarrik bete ahal izango ditu zisternak;
- d) Zisterna bete bitartean, ondoko tangetan dauden salgai arriskutsuei buruzko xedapenak errespetatu beharko ditu;
- e) Zisterna bete bitartean, gehieneko betetze-indize onargarria, betetze-maila edo edukiaren masa onargarria errespetatu beharko du zisterna betetzeko erabiliko den salgaiaren edukiera-litro bakoitzeko.
- f) Zisterna bete ondoren, ixte-elementu guztiak itxita daudela eta ihesik ez dagoela ziurtatu behar du;
- g) Kargatzaileak egiaztatu beharko du berak bete dituen zisternen kanpoaldean ez dela zisterna betetzeko erabili den salgaiaren hondakin arriskutsurik itsatsi;
- h) Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, egiaztatuko du agindutako panel laranjak, etiketak edo plaka-etiketak xedapenen arabera jarrita daudela zisternen gainean.

4.5 Garraioa

Erreaktiboa zisterna-ibilgailuetan garraiatuko da, eta kamioiek lege ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte, bai eta produktuaren segurtasun-fitxatik eratorritakoak ere. Kontratua indarrean dagoen bitartean garraioaren kondizioen gainean egiten den lege-aldaketa bakar batek ere ez du eraginik izango kontratuan.

Garraiolariak, bereziki, betebeharrak izango ditu:

- a) Garraiatu behar diren salgai arriskutsuak ADR Akordioaren arabera garraiatzeko baimenduta daudela egiaztatu beharko du;
- b) Ziurtatu beharko du ADR Akordioan xedatutako informazio guztia —garraiatuko diren salgai arriskutsuekin lotura duena— bidaltzaileak eman duela garraioa egin aurretik, dokumentazioa garraio-unitatean dagoela, edo paperezko dokumentuak erabili ordez, datuen prozesamendu elektronikoa egiteko teknikak (EDP) edo datu elektronikoak trukatzeko teknikak (EDI) erabiltzen badira, garraioa egin bitartean datuak eskuragarri daudela paperezko dokumentazioaren baliokidea den modu berean gutxienez;
- c) Begiz egiaztatu beharko du ibilgailuek eta kargak ez dutela ageriko akatsik, ihesik edo pitzadurarik, ekipamendu-gailu guztiak dituztela eta abar;

- d) Zisterna-ibilgailuen hurrengo probaren data ez dela igaro egiaztatu beharko du;
- e) Ibilgailuak ez direla gehiegi kargatzen ziurtatu beharko du;
- f) Ibilgailuetarako agindutako plaka-etiketak eta seinaleak jarrita daudela egiaztatu beharko du;
- g) Jarraibide idatzietan gidariarentzat adierazitako ekipamenduak ibilgailu barruan daudela egiaztatu beharko du.

Hori guztia, hala dagokionean, garraio-dokumentuaren eta dokumentu osagarrien arabera egin beharko da ibilgailuaren, eta, hala dagokionean, kargaren ikusizko azterketa eginez.

Hala eta guztiz ere, garraiolaria, a), b), e) eta f) kasuetan, beste parte-hartzaile batzuek (bidaltzailea edo kargatzailea) emandako informazioez eta datuez fidatu ahal izango da.

Garraiolaria konturatzen bada ADR Akordioko xedapenak betetzen ez direla, ez du bidalketa egin beharko dena konpondu arte.

Xedapen horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da karga jatorrira itzultzeko.

Adjudikazioduna (bidaltzailea edo kargatzailea) produktua kargatzean (bere instalazioetan) izandako istripu edo gorabeherak eragindako edozein kalteren erantzule zuzena izango da, nola BBUPi dagokionez hala hirugarrenei gagozkiela; eta bidaltzaileak erabili duen garraiolaria produktuaren garraioarekin zerikusia duenaren erantzule zuzena izango da, baita garraibidearen edozein elementuren garbiketa okerrean ondorioz sortzen direnena ere.

Zisterna bidezko garraioaren dokumentuan datu hauek azalduko dira gutxienez:

- a) Salgaiaren bidaltzailearen (garraioa kontratatu duenaren) izena eta helbidea.
- b) Salgaiaren hartzailearen izena eta helbidea (BBUPeko instalazioetako enpresa ADJUDIKAZIODUNAREN ETA USTIATZAILEAREN datuak adieraziko dira).
- c) Garraiatutako salgaiaren izendapena.
- d) Salgai arriskutsuaren kantitatea (kg-tan edo litrotan adierazita), baina zer zerrendatzen den zehaztu behar da.
- e) Gehieneko betetze-maila

4.6 Hornigaien harrera eta deskarga

Kargatzeko eta garraiatzeko lan guztiak hornitzailearen kontura izango dira. Hornidurak instalazioan egingo dira, produktua dagokion deposituan/tangan jarrita.

Gidariak onartuko du instalazioan egin behar diren egiaztapenak egitea eta BBUPeko edo enpresa ustiatzaileko langileei lagunduko die egiaztapen horiek egiten.

BBUPi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bidalitako produktuaren kantitatea eskaeran eskatutakoa baino handiagoa bada, ez da bermatuko bidalketa oso-osorik deskargatuko denik, eta instalazioaren biltegitratze-edukiera gainditzeko den zati bat edo eskaera osoa itzultzeko aukera egongo da; nolanahi ere, horrek ez dio hornitzaileari eskubiderik emango erreklamaziorik egiteko.

Kasu horretan, garraiolariak dakarren garraio-dokumentua aldatu egingo da; honela:

Helmugan deskargatutako kantitatea:

Bidaltzaileari itzulitako kantitatea:

4.7 Ibilgailuen kontrola

Adjudikaziodunaren erantzukizuna da kontratuaren xede den hornidurarako erabiltzen dituen ibilgailu guztiek indarreko legeriak horretarako ezartzen dituen betekizunak betetzea.

Adjudikaziodunak erabiltzen duen garraiolariak beharrezkoak diren aldizkako azterketak eta probak egin beharko ditu eta, gutxienez, industriari edo garraioari buruzko legeak eta erregelamenduek, mota horretako ibilgailuetan eragina dutenek, agintzen dituztenak.

4.8 Larrialdi-egoeretan nola jokatu

Larrialdi-egoeretan jarduteko modu hauek eta ondorio nagusi hauek aurreikusten dira:

- a) Ingurumen-gorabeherarik edo -istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio gorabehera Kontratuaren arduradunari. Gorabeherari buruzko txosten idatzia (arrazoiak eta hartutako ekintza zuzentzaileak) eskatu ahal izango dio.
- b) Ezin da substantzia arriskutsurik isuri saneamendu-sarera. Adjudikaziodunari leporatzeko moduko isuririk detektatuz gero, hura tratatzearen ondoriozko gastuak egotziko zaizkio.
- c) Substantzia arriskutsuak istripuz isuriz gero, berehala bilduko dira, landare-lurzorura eta saneamendu-sarera iristea eragotziko da, eta BBUPi ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio.
- d) Larrialdien ondorioz sortzen diren hondakinak apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko denak) eta hura garatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira. Jarduera horrekin lotura duten gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira.

5 HARRERA-KONTROLAK

5.1 Hornigaien laginak hartzea eta analitika

BBUPek eskubidea du errektiboa deskargatzen den bitartean laginak hartzeko. Hiru lagin hartuko dira: lagin bat BBUPek analizatzeko izango da, eta beste biak, berriz, gordailuan geratuko dira itxita, BBUPen barnean. Bi lagin horietako bat hornitzaileak geroago egiaztatzeko izango da, eta, bestea, hala badagokio, elkarrekin aztertzeko.

BBUPek egindako hasierako analisitik ondorioztatutako kalitatea kontratuan eskatutakoa baino txikiagoa bada, analisi-buletina jasotzen denetik 10 egun igaro baino lehen emango zaio horren berri hornitzaileari. Abisua ematen denetik 15 egun natural izango ditu hornitzaileak BBUPen barnean gordetako laginetako bat kentzeko. Epe hori igaro eta hornitzaileak lagina kentzen ez badu, suntsitu egingo da, eta ulertuko da hornitzaileak egokitzat hartzen duela BBUPek lortutako emaitza.

Lagina kendu eta alderatu ondoren adostasunik ez badago, hornitzaileak beste analisi bat proposatu ahal izango du erreserbatutako hirugarren laginari buruz; bi aldeek onartutako erreferentziatzko laborategi ofizial batean egingo da analisi hori, eta laborategi horren emaitzak azken emaitza gisa onartuko dira. Azken analisi horren ondoriozko gastuak hornitzailearen kontura izango dira emaitzak BBUPek adierazitako zehaztasunarekin bat badatoz, eta BBUPen kontura, berriz, bat ez badatoz. Azken saiakuntza hori behin betikoa izango da produktuaren konposizioa finkatzeko.

5.2 Pisatze-kontrola

Hornigaien pisatze-kontrola egiteko erabiliko den baskularen homologazioari eta kalibrazioari buruz indarrean dauden ziurtagiriak entregatuko ditu adjudikaziodunak.

BBUPek edozein entregari buruzko pisatze-kontrolak egin ahal izango ditu.

EUTra iristean, garraio-ibilgailua pisatuko da deskargatu aurretik. Deskargatu ondoren, berririo pisatuko da baskula berean. Ondoren, bi pisuen artean dagoen aldea BBUPek lortutako pisu gisa erregistratuko da.

5.3 Kalitate-kontrola

Aldizka eta aurreko analitika eman zenetik gutxienez urtean behin, hornitzaileak kontsumo-urak analizatzeko laborategi egiaztatu batek egindako analitika bat aurkeztu beharko du. Analitika horretan produktuaren aberastasuna eta parametroen emaitza analitikoak, UNE 938:2016 Araua (Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Kloroa) betez Preskripzio Teknikoen Agirian eskatzen direnak, adieraziko dira. Sodio klorito likidoa.

Arestian adierazi dugunez, BBUPek egoki irizten badio, produktuaren lagina hartu eta analizatu ahal izango du produktuak Preskripzio Teknikoen Agirian agintzen diren kalitate-parametroak betetzen ote dituen egiaztatzeko, eta aldi berean lortutako bi lagin gordeko ditu egiaztatzeko analisisa egiteko.

BBUPek entrega baztertu ahal izango du produktuak aldatu izanaren ebidentziak baditu, zisternak ihesak eta kolpeak baditu edo egoera txarrean badago eta beste edozein zirkunstantzia badago,

zeinaren ondorioz, hartzailearen iritziz entrega onartezina bada edo arriskua eragiten badu.

5.4 Hornitzeko erritmoa

Erreaktiboaren hornidura-erritmoa BBUPEk dituen premietara egokituko da une oro. Baldintza arruntetan, ez da hornidura-epe jakin bat eskatuko. Hornidura entregatzeko data bi aldeek adostuko dute eskaria egiten denean, aintzat hartuta eskaria egiten duen BBUPEko agenteak erabakitzen duen zentzuzko hornidura-epea. Ezohiko baldintzetan, ekoizpen-premiak direla medio, hornidura eskaria egin eta 72 orduko epean egitea eskatu ahal izango da, eta kontratistak, betekizun hori bete ezean, zehapena jasoko du.

6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Adjudikaziodunari dagokio zerbitzua ematen den bitartean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzea.

6.1 Aurretiko ekintzak

Lanak hasi aurretik, enpresa-jarduerak koordinatuko dira 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta lanerako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, lanen arriskugarritasuna, langile kopurua edota nahasitako enpresak kontuan izanik, 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikuluekin bat etorritik.

Lanak hasi aurretik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontratuaren arduradunaren bitartez, honako hauek jarriko ditu kontratatutako enpresaren eskura:

- Lan Baldintzen Ebaluazioa; bertan jasoko da kontratatutako enpresako langileek zer arrisku izango dituzten BBUPEko instalazioetan egindako lanen ondorioz, bai eta arrisku horiek eragotzi edo arintzeko aplikatu behar diren neurriak ere.
- Lan berezietan (laneko eremuarengatik edo lanen arrisku bereziarengatik), BBUPEk kontratatutako enpresak derrigorrez betetzeko Lan Segururako Jarraibideak helaraziko dizkio kontratatutako enpresari.
- Larrialdi Plana, edo halakorik ezean, enpresak bere lanak egiten dituen instalazioetan larrialdia izanez gero bete behar dituen aginduak.

Kontratuaren arduradunak honako dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- a) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurreko apartatuan adierazitako dokumentuak entregatu izanaren egiaztatzea, sinatuta eta zigilatuta.
- b) Antolaketa prebentibo mota.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruia eta ordainketan egunean egotearen egiaztatzea.
- d) Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztatzea (hilero bidali beharko da).
- e) Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa.
- f) Lan-prozedura, kargatzeko eta deskargatzeko lanen arriskuak eta prebentzio-neurriak zehazten dituenak.
- g) Azpikontratazio-erregistroa (hala badagokio).
- h) Frogagiria, garraioa azpikontratatu zaion, eta ondorioz BBUPen instalazioetakoren batean sartu beharko duen, enpresari (edo enpresei) arrisku-ebaluazioaren edukiaren eta lan-prozeduren berri eman zaiola adierazten duena.
- i) Lanetan esku hartzen duten langileen zerrenda.
- j) Segurtasun-arloko arduradunaren izendapena
- k) Prebentzio-osasunaren zaintzaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- l) Langileentzako prebentzio-prestakuntza eta -informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik balego).
- m) Norbera babesteko ekipamenduak entregatu izanaren erregistroa (langileek sinatua).
- n) Produktu kimikoen (esposizio-tokiak barne) segurtasun-fitxa.

Horrez gain:

- a) Bereziki arriskutsuak diren lanetarako prebentzio-neurri espezifikoak ezarriko dira, hala badagokio.

- b) Edonola ere, elkarrekin identifikatuko dira kontratatutako enpresak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aldi berean eta batera egindako ekintzen ondorioz sortu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

6.2 Lanaren exekuzioa

- a) BBUPEk beharrezkotzat hartzen diren aldizkako bilerak deituko ditu kontratatutako enpresetako ordezkariekin, kontratatutako prebentzio-arloko teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPen Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuarekin, eta bilera horietan jorratutako gaien akta jasoko da; kontratuaren martxaren arabera.
- b) Kontratatutako enpresari dagokio ziurtatzea zerbitzua ematen duten enpresek edo langileek arriskuen ebaluazioa eta lan-prozedura ezagutzen dituztela, bai eta norbera babesteko beharrezkoak diren ekipamenduak dituztela ere.
- c) Kontratatutako enpresari dagokio Baldintza Teknikoen Agiri honetan jasotako lanetarako beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea (Adib.: seinaleztapen-elementuak eta abar).
- d) Aldizka segurtasun-ikuskapenak egingo dira.
- e) Istripuren bat gertatuz gero Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan (alde batera utzita bakarrik eragiten ote duen), kontratatutako enpresak berehala jakinaraziko dio kontratuaren jarraipena egiteko arduradunari, eta, arduradunak, aldi berean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuari.
- f) Istripua BBUPEko instalazioetan gertatzen bada, kontratatutako enpresak istripua ikertuko du, eta Ikerketa Txostenaren kopia bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari eta beste kopia bat BBUPen Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuari, beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Beteluri, 2025eko uztailak 4

Kontratuaren arduraduna